

Erljio publikoa

rren misioaren gain finkatzen dena. Horieta-kotzat jotzen dira *judaismoa, *kristautasuna, *islamismoa, *parsismoa eta agian sikh-en erljioa ere bai. Ik. Sikhismoa.

Erljioen sailkapenean, erljio profetiko-etikoa erljio mistiko-kultuzkoari kontrajartzen diote nolabait. Baina erljio gehienetan bi dinamismoak gertatu ohi dira: profetikoa eta mistikoa. Aldi bakoitzean eta talde bakoitzak alderdi bata ala beste nabarmendu ohi du.

Ik. Profeta; Erljioen tipologia.

Erljio publikoa

Ik. Gurtza publikoa.

Erljio telurikoa

Lurraren barrualdean agintzen duten jainkotan eta jeinutan sinesten duena eta horiek gurtzen dituen.

Ik. Agintedun ktonikoak.

Erljio unibertsala

Sin.: Munduzabaleko erljioa

Inolako etnia, kultura edo naziori lotuta ez dagoena, eta, bere dinamikaz, munduzabalera hedatzekoa dena. Horiek badituzte beren ezaugarriak; a) Jainkoaren eta gizakiaren arteko harremana ez da norberaren nazio-elkartearen edo Herriaren bitartekotza juridikoaren gain eratzen; b) Era berean, norberaren fedeko Jainkoa gizaki guztien edo guztientzako Jainkotzat ezagutzen da, eta, horregatik misiolaritzak zentzu bete hartzen du. *Zoroastrismoa, *budismoa, *islamismoa eta *kristautasuna erljio unibertsaltzat hartzen dira.

Ik. Misioak; Elizaren katolikotasuna; Erljioen tipologia.

Erljio-aldaketa

Sin.: Konbertsioa

Konbertsioa baino zabalagoa da, hala ere, eta zera esan nahi du: norbait erljio berriren bateko jarraitzaile egitea, bere gogoz eta erabakiz, nahiz egoera historikoaren aldaketa dela tarteko, edota harreman pertsonalek horretara "behartuta".

Ik. Apostasia.

Erljio-antropologia

Erljio-etnologia ere esaten da. Kultur antropologiaren parte da, gizakia izaki erlijioduna denez, horren adierazpide guztiak aztertzen dituen: hots, sinesteak, *erritoak, erljiozko ihardunbidea, erljiozko erakundeak, etab. Batzuk erljio-so-

ziologiari kontrajartzen diote, hura idatz-kulturarik gabeko Herri "primitiboei" legokielakoan; baina gaur edozein Herri "aurre-ratu" eta industriadunera zabaltzen da antropologiaren zientzia.

C.F. Bleeker-ek Anthropologie religieuse titulua jarri zion, Erroman 1955ean, Erljioen Historiaren VIII. Kongresu nazioartekoan, gizakiaren izaera eta helburua aztertu zituen symposium-eko hitzaldien bildumari. S.G.F. Brandon ez dirudi terminologia horrekin ados dagoenik, eta, bere alde-rik, beste titulu hau ematen dio bere liburuari: Man and his destiny in the great Religions.

Erljio-antropologiaren luzaroko arazo nagusia erljioaren sorrera eta eboluzioa izan da: Hori argitu nahian hainbat teoria asmatu izan dute: E.B. Tylor-en *animismotik hasi, R.R. Marret-en *animatismo edo preanimismotik igaro eta Lang-en eta Schmidt-en *lehen alditako goi-agerkundera eta *monoteismoraino.

J.G. Frazer-ek *magiaren ondoko etapatzat jarri zuen erljioarena; E.Durkheim-ek, berriz, gizarte-unitatearen fenomeno berekitzat eta integratzailetzat hartu zuen erljioa beronen lehen fasean edo *totemismoan.

Kultur antropologiak bere mende beteko historian igaro dituen metodologia eta eskola ezberdinak izan dira erljio-antropologian ere: *eboluzionismoa, partikularismoa, *difusionismoa eta *kulturkreise-ren teoria, *funtzionalismoa, estrukuralismoa.

Franz Boas, Ipar Amerikako kultur partikularismoaren sortzailea, eta haren jarraitzaileak, herri primitiboak aztertzekeo landa-lana egiten saiatu ziren bereziki eta ez ziren erljioaren sorreraren edo eboluzioaren teoria handitan sartu. *Totemismoaren gertakaria azertzeaz gain, herri bakoitzeko *erritoak eta horien azalpentzat hartzen diren *mitoak bilatu zituzten, baita beste-lako erljiozko elementu zehatzak ere.

Era berean A.R. Radcliffe-Brown-en eta B. Malinowski-ren funtzionalismoak eta Lévi-Strauss-en estrukuralismoak, kultura bakoitzaren barneko azterketa egitean, horren baitan aztertu zituzten erljioaren lekua eta funtzioa ere, erljioen arteko konparazioan edo horien historian sartu gabe.

Etnologia edo kultur antropologia orokorraren arabera, horren ikuspegi eta metodoe-kin aztertu diren erljiozko adierazpideak ere Herri primitibo edo idatz-kulturagabeei buruzkoak izan dira bereziki. Gaur berriz, erljio-antropologiak gizarte industrialdu, hiritar eta sekulartuetara zabaldu ditu bere landa-lana eta azterketa.

Bestalde, erlijioaren eta mitoen hizkera sinbolikoaren espezifikotasunaren eta balioaren arazoak hartu dute garrantzi handia gaurko erlijio-antropologian.

Ik. Erlijio-zientziak.

Paulo Agirrebaltzategi

Erlijio-fundatzailea

Erlijio-eratzzailea ere esaten da. Horrela deritza erlijio berriren bati oinarriak ipini dizkionari, edota bere *predikuaren bidez bere ingurura ikasle-multzoren bat bilduz, erlijio berriaren eraikitzea bideratu duenari.

Eratzzailea edo fundatzailea Jainkoagandiko goi-agerkudean edo bere barne-argitzapenean oinarritu ohi da; baina horrekin batera, nolabaiteko *deiera eta *misio trazedenteari heldu ohi dio eratzzaileak bere lanbiderako.

Erlijio-eratzzaileak halako balio nagusi batzuk aukeratu ohi ditu erlijiozko tradizioetik, bere mezu osoaren muina izango direnak. Tradizio horren ukapena, onarpen partziala nahiz aldaketa gerta daiteke erlijio berria.

Sarritan eratzzailearen izena hartu ohi du gerora erlijioak, nahiz eta eratzzaileak berak bestelakoa eman izan: *budismoak, Buda eratzzailearengandik; mahometismoak, Mahomet profetarengandik nahiz eta erlijioaren izen egokia islama edo *islamismoa izan; *kristautasunak, Jesusi eman zioten Kristo deituratik.

Ik. Fundazio-erlijioa; Erlijio historikoa.

Erlijio-gerra

1. Orokorki harturik, erlijiozko zioengatik gizarte edo gizamultzo bi elkarren kontra armaz borrokatzea da. Nekez egon ohi dira horrelakoetan erlijiozko zioak bestelakoekin nahasi gabe.

2. Bereziki, ordea, erlijio-gerrateak izena eman zaie, Frantzian, 1562-1594 bitartean, hugonoteen edo kalbindarren eta katolikoaren artean gertatu ziren armazko borroka odoltsuei. Gertakaririk gogorrena S. Bartolome Gaueko sarraskia, katolikoek milaka protestante garbitu zituztenekoa, izan zen.

Nantes-eko Ediktuarekin (1598an) bukatu ziren gerrate horiek.

Ik. Jihad; Erlijiozko jazarpena.

Erlijio-gisakoa

Paul Tillich-ek erabiltzen duen quasi-religion esamoldearen euskarapena; erlijioaren ordezkoa adierazten du.

Ik. Erljiokara; Sasi-erlijioa; Erljioaren ordezkoa.

Erljio-mintzaira

Ik. Sinboloa; Hizkuntza eta erlijioa.

Erljio-obrakuntza

Ik. Erljiozko praktika.

Erljio-pedagogia

Teologia praktikoa edo *pastoraltzaren parte da, fedeko ezagutzak eta biziera komunikatzeko eta fededuna horretan gidatzeko erlijiozko hezieraren abiaburuak, helburuak, metodoak eta baliabideak estudiatzen dituen. Erljio-pedagogia eta katekesia alor oso hurbilekoak dira eta sarritan berdindu egiten dira. Ilustrazio-garaian hazi eta garatu zen bereziki.

Ik. Katekesia; Pastoraltza.

Erljio-politika

Agintari zibilek --edota alderdi politikoek-- erlijiozkoari buruz dituzten abiaburu teorikoak nahiz jokabidea beren praxi politikoan. Erljioa agerkari soziala denean --ez norbanakoarena bakarrik-- eta erlijiozko elkarte eta erakundeek gizartearen barruan indarra eta garrantzia hartzen dutenean, indar politiko denek eduki ohi dute nolabait zehazturik beren ideologia, taktika eta estrategia zer erlijiozkoari buruz: aldekoa, kontrakoa ala neutrala.

Batzutan izan daiteke politika hori, erlijioa jazartzearena, nahiz baztertzearena, nahiz norberaren bizitza soilera bihurtzearena: Hori ere erlijiozkari buruzko edo erlijio jakin bati buruzko politika da.

Ik. Erljiozko jazarpena; Estatu-erlijioa; Konkordatua; Erljio-gerra.

Erljio-zientziak

Etnologian eta Kultur Antropologiaren historian kapitulu garrantzizkoa izan dira erlijiozko sinesteak eta ihardunbideak. Beste alorretan bezala, erlijioarenean ere erlijiozko ohitura, sineste eta jokabide ezberdinak nabarmendu dira historian zehar: horien berri eman izan dute, hain zuzen, antzina-antzinatik bidaialariek, *misiolariek, etab.

Dena dela, erlijioen eta erlijioaren fenomenoak bere osotasunean eta zabaltasunean